

**1336. ZENBAKIDUN**  
**ALKATETZAREN DEKRETUA**

**Planteatutako gaia**

Garbiketa produktuak hornitzeko kontratua behin-behinekoz esleitzea.

**Argudioak**

Lehenengoa: 2010eko irailaren 29an Tokiko Gobernu Batzarrak bere 23. erabagian, baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Bigarrena: Ondorengo enpresei luzatu jakie eskaintza aurkezteko gonbidapena: DROGAS ANTON, DROGUERIA URIARTE, LIDERA HIGIENE eta QUISER.

Eskaintzak aurkezteko epea urriaren 15etik kontatzen hasita, HAMABOST egun NATURALAK urriaren 29a barne betetzen da. Epe horretan, LIDERA HIGIENE eta DROGUERIA URIARTE enpresek baino ez dabe eskaintza aurkeztu.

Hirugarrena: 2010eko abenduaren 2an Zerbitzu Saileko teknikariak, eskaintzen konparaketa burutu eta espedientean dagoan bere txostena emoten dau, ondorengo puntuaketa laburpenagaz, baldintza-agirietako baremoen arabera:

		Iraunkortasun irizpideak (0-40)			
Enpresa	Proposamen ekonomikoa (0-60)	Garbiketa produktua (0-21)	Paperak (komunek oak-eskuak) (0-10)	Zabor poltsak (0-9)	Guztira (0-100)
LIDERA	60	5	0	6	71
D. URIARTE	47,16	5	10	0	62,16

Beraz, Lidera Higiene enpresek puntuaketa altuena jaso dau.

Laugarrena: Kontratua indarrean sartu baino aurreko ekitaldian tramitatu danez, behar beste diru aurreikusiko da ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren kontura. **Horrela ba, kontratu hau kontsignazio aurreikuspen nahikoa izatearen baldintzapean geratzen da.**

**Erabagia**

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: LIDERA HIGIENE, S.L. enpresemi 2011-04 kontratua behin-behinekoz esleitzea:

Kontratua: *Garbiketa-materialen hornidura*.

Kontratu epea: urte birako, 2011-2012, beste horrenbestera luzagarria.

Prezioa: Unidateko prezioetan, esleipendunaren prezio taularen arabera.

Gainontzeko gastuak prezioetan aurreikusi dira, BEZ %18a izan ezik.

BIGARRENA: Esleipendunari jakinarazotea, hornidurak egiterakoan baldintza-agirietan jasota dauden baldintzak bete beharko dauzala, zelulosazko produktuei jagokezanak barne.

HIRUGARRENA: Udaleko Segurtasun teknikariari helarazotea produktuen segurtasun-fitxa teknikoak jagokon azterketa egin dezan eta hartu beharreko segurtasun neurriak har ditzan.

LAUGARRENA: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.

BOSGARRENA: Esleipendunari gogorarazotea, behin betiko esleipena egin aurretik, behin betiko bermea ezarri behar dauela Udal Diruzaintzan. Jagokon kontratua sinatuko da.

Era berean, behin-behineko bermeak itzuliko dirala jakinarazoten da parte-hartzaileei.

Bermeon, 2010eko abenduaren 13an  
ALKATEA

NIRE AURREAN  
JARDUNEKO IDAZKARIA